


Informazio-teknologiako ekipamenduek hobera egin dute Euskal AEko enpresetan 2004an, baina 2003an baino gutxiago

Interneteko sarreraren erdia baino gehiago ADSL lineen bidez egiten dira

Informazioaren gizartearen gainean Eustatek enpresetan egindako inkesta honetan, 2004. urtea hastean, Euskadiko enpresek duten informazioaren teknologietako ekipamenduak hobetu egin direla ageri da. Orokortu egin da teknologia horien erabilera enpresa horietako langileen artean, bereziki Interneten sartzeari eta posta elektronikoa erabiltzeari dagokienez.

Aurreko urtearen aldean, IKT -Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia- ekipamenduek hazkunde neurritsuagoak izan dituzte Euskadiko enpresetan. Beraz, Interneteko sarbidea edo posta elektronikoa dutenak ehuneko 3 puntu inguru hazi dira, 2003koen erdia. Ordenagailua edo web orria dutenak 2 puntu gehitu dira eta 2003an 4 pasa gehitu ziren, esaterako PCa zutenenak. Sakelako telefonoa duten enpresen ehunekoa, aldiz, ia bera da.

1. grafikoa: IKT ekipamenduen bilakaera Euskadiko enpresetan (%)



Iturria: Eustat

Lurraldez lurralde, datuek igoera handiagoak erakutsi dituzte Araban ordenagailu pertsonalen eta web orrialdeen kopuruan, %3,3 eta %2,7, hurrenez hurren; Bizkaian, aldiz, posta elektronikoan (%3,7) eta Gipuzkoan Interneteko sarreretan (%3,6). Sakelako telefonoari dagokionez, Araban %3,1 igo da, baina gainerako lurraldeetan jaitsi egin da apur bat.

**1. taula: Establezimenduetako IKT ekipamendua, lurralde eremuka.
2004 urtea.**

	Ordenagailu pertsonala		Posta elektronikoa		Internet		Sakelako telefonoa		Web orria	
	%	Aldakuntza*	%	Aldakuntza*	%	Aldakuntza*	%	Aldakuntza*	%	Aldakuntza*
Euskal AE	59,9	2,0	42,7	2,9	45,9	3,2	63,6	-0,2	16,4	1,9
Araba	66,9	3,3	44,4	2,1	47,4	1,3	71,8	3,1	17,2	2,7
Bizkaia	59,0	1,8	42,5	3,7	45,0	3,5	61,4	-1,4	16,0	1,9
Gipuzkoa	58,8	2,1	42,4	2,1	46,8	3,6	63,7	-0,3	16,7	1,6

* Aurreko urtearekiko aldea, ehuneko-puntuetan.

Iturria: Eustat

10 enplegatu baino gutxiagoko enpresak erritmo handiagoan hazten dira IKT ekipamenduetan.

Establezimenduen tamainaren aldagaiak establezimenduen arteko funtsezko ezberdintze-elementu bat sartzen du eta aldagai horri dagokionez, tamaina txikieneko establezimenduek (0-9 enplegatu) jarraitzen dute guztietan ekipamendurik apalena izaten. Zifrarik kaskarra: %13,3k du web orria. Zifrarik onena: %62,2k dute sakelako telefonoa. Tarteko zifra gisa, %39,1ek du posta elektronikoa, %42,6k Interneteko sarbidea eta %57,1ek ordenagailua. Hala ere, aldeak txikitzen doaz gainerako enpresen aldean dituzten hazkunde-tasa handiagoen eraginez, maila nahiko apalagoetatik hasita ere. Sakelako telefonoak antzera dirau, baina gainerakoak ehuneko 2 eta 3 puntu hazi dira, aurreko urtearen aldean.

Bestalde, 10 enplegatu eta gehiagoko enpresen batez bestekoa honako zifretan mugitzen da: %55,8k dute web orria, %96,2k ordenagailua, %80,6 lortu dute sakelako telefonoetan, %87,9 posta elektronikoa eta %88,1 Interneteko sarbideetan. Enplegu-tamaina horretan, aurreko urtearen aldean 4,1 ehuneko-puntu hazi diren web orriak alde batera utzita, hazkundeak txikiagoak izan dira tamaina txikiagokoetan baino: 1,5 ehuneko-puntu inguru lortu dute E-mailean eta Interneteko sarreretan eta berean iraun dute sakelakoek eta ordenagailuek.

Konparazioa egitean teknologia horiek erabiltzen dituzten enplegatuak kontuan hartuta, aldeak asko txikitzen dira. Izan ere, establezimendu txikiek gehiago aurreratu dute, eta handietan enplegatuen zati batek baino ez du enpresako ekipamenduak erabiltzeko aukera. Horrela, 0 eta 9 enplegatu arteko establezimenduetako landunen %50,2k erabiltzen du ordenagailua eta 10 enplegatu edo gehiagokoetan, berriz, %54,8k. Halaber, txikietan %36,0k du Interneteko sarbidea, handietako %40,1en aldean, eta posta elektronikoa %33,3k handietako %41,7en aldean.

Interneteko sarbidedun 9 enplegatu baino gehiagoko enpresetan, %70 baino gehiago sartzen dira ADSL bidez.

Euskadiko enpresen %45,9ek Interneteko sarbidea du. Sarbideen artean, urtetan ehuneko-hazkunde handiak izan ondoren, ADSL lineak dira lehenengo aldiz aukerarik erabiliena eta sarrera guztien %53,3 hartu dute, 13,3 ehuneko-puntu igo ondoren.

Modemdun telefono-linea arruntak bigarren aukera dira eta guztizkoaren %42,0 hartzen dute, 7,3 puntu jaitsi ondoren. ISDN lineak beste 3,7 puntu jaitsi eta %11,6 hartzen dute eta azkenik, bestelako konexioek %5,4 hartzen dute.

2. taula: Interneteko sarbidea duten establezimenduak eta sarbideak (%).

		Guztira			10 enplegatu edo gehiago		
		2004	2003	2002	2004	2003	2002
Establezimenduen %		45,9	42,7	36,5	88,1	86,7	80,8
Bideak	Modema	42,0	49,3	58,4	24,4	25,5	37,5
	ISDN	11,6	15,3	23,1	16,8	25,4	36,2
	ADSL	53,3	40,3	26,2	70,2	58,4	37,2
	Sakelako telef.	2,2	2,0	2,5	3,5	3,2	3,0
	Bestelakoak	3,2	2,8	2,2	7,5	8,0	6,5

Iturria: Eustat

10 enplegatu eta gehiagoko enpresen artean, %88,1k Interneteko sarrera dute. ADSL lineen erabileraren gorakada are nabarmenagoa da 10 enplegatu eta gehiagoko establezimenduak aztertuz gero: horietan, Internetera sartzeko bide nagusia dira eta %70,2k erabiltzen dituzte. Urrutitik jarraitzen diete modema erabiltzen dutenek (%24,4), ISDN lineek (%16,8) eta gainerako lineek (%11,0).

10 enplegatu eta gehiagoko Euskadiko enpresen erdiak baino gehiagok dauka web orria.

Web orria duten enpresei dagokionez, hazkundera nabari da, dela euren weba dutenen artean, %10,9 baitira dagoeneko, dela besteren zerbitzarian ostataturiko orria dutenen artean (%5,5). Ondorioz, Euskal AEko enpresen guztizkoaren %16,4k web orria du.

Berrito ere establezimenduaren tamainari erreparatuta, euren web orria duten 10 enplegatu eta gehiagoko establezimenduak %36,8 dira dagoeneko eta besteren zerbitzarian ostatutako web orria dutenak %19,0. Honenbestez, mota horretako establezimenduen erdiak baino gehiagok (%55,8k) web orria dute.

2003an merkataritza elektronikoa apur bat gehitu zen, baina pisu espezifiko urria du oraindik ere Euskadiko enpresetan

Oraindik ere Euskadiko establezimenduek ez dute gehiegi erabiltzen posta elektronikoa. Sarearen edo bestelako sistema elektronikoaren (EDI, datu truke elektronikoa) bidez erosten edo saltzen duten establezimenduen kopurua apala da oraindik ere, eta zenbatespen estatistikoaren balioa ez da segurua eta errore-marjina zabala du.

Dena dela, ikus dezakegu zertxobait hazi dela merkataritza elektronikoa egiten duten establezimenduen ehunekoa: %4,4 ziren 2002an, eta %5,1 izan dira 2003an. Gehikuntza horren arrazoiak bi dira: batetik, bide elektronikoetatik erosten duten enpresak gehitu egin dira eta %4,3 dira dagoeneko; eta bestetik, neurri txikiagoan bada ere, bide beretik saltzen duten enpresak ere gehitu egin dira eta %1,4ra iritsi dira.

Egindako kalkuluen arabera, 8.700 dira Euskal AEn merkataritza elektronikoa egiten duten establezimenduak. Establezimendu horiek bide horretatik egiten dituzten erosketak guztizko erosketen %17,4 hartzen dute eta salmentek, guztizko salmenten %20,6.

10 enplegatu eta gehiagoko enpresen %10,9k merkataritza elektronikoa egiten dute, %8,7k erosketak elektronikoak eta %3,7k salmenta elektronikoak.

Jarduera-sektoreka, nagusi ageri dira merkataritza elektronikoaren erabileran, *material elektrikoa* eta *papera eta arte grafikoak* sektoreak, eta horietan establezimenduen %13 baino zertxobait gehiagok erabiltzen dute. Halaber, *kimika-industria* eta *garraio-materiala* sektoreek ere %10a gainditu dute. Zerbitzu-sektorean, *banka eta aseguruak* nabarmentzen dira eta beren establezimenduen %12,1ek egiten dute merkataritza elektronikoa.

Ohar metodologikoa: Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta (IGI-enpresak) laugarren aldiz egin du Eustatek 2004ko lehenengo hiruhilekoan, lehen sektorea ez den edozein jarduera-sektoretako Euskadiko enpresei zuzenduta. Inkesta honen bidez, datu hauek jakin nahi dira: informazioaren eta komunikazioen teknologietan (IKT) enpresek dituzten ekipamenduak; Internet nola erabiltzen duten; eta merkataritza elektronikoaren garrantzia. Euskal AEn kokatutako 7.500 establezimenduko lagina du oinarri inkestak.

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tlf:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 E-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Jose Miguel Escalada

Tlf:+34-945-01 75 07 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es